Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4875

AGINDUA, 2010eko ekainaren 23koa, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Añanako (Araba) Añanako Gatz Harana Fundazioaren estatutuetako 3. artikuluan egindako aldaketa (helbidea) inskribatzeko dena.

Añanako (Araba) Añanako Gatz Harana Fundazioak aurkeztutako espedientea ikusi eta aztertu da, ondoko aurrekarietan oinarriturik:

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2010eko maiatzaren 21ean Justizia eta Herri Administrazio Saileko Erregistroan ondoko dokumentazioa jaso zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko:

– Fundazioaren ordezkaritzan M.ª Lorena López de Lacalle Ariztik 2010eko maiatzaren 14an Francisco Rodriguez-Poyo Segura Gasteizko notarioaren aurrean beste eskritura bat zuzendu eta osatzeko egiletsitako eskritura publiko bikoitza (protokolo-zk.: 1797).

Bigarrena.– Geroago, 2010eko ekainaren 23an, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren Erregistro Orokorrean honako agiri hauek sartu ziren:

– Fundazioaren helbidea eta estatutu-arau bat aldatzeko 2010eko urtarrilaren 22an Jesús María Elorza Fernándezek, Gasteizko notario Enrique Arana Cañedo-Argüellesen aurrean egiletsitako eskritura publikoaren kopia eskuetsia eta bikoitza (protokolo-zk.: 122).

Hirugarrena.– Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Zuzendaritzako Zerbitzu Teknikoek espediente hori aztertu ondoren, ebazpen hau proposatu dute, honako hauek oinarri hartuta:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala agintzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 40. artikuluan; halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

4875

ORDEN de 23 de junio de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, del Gobierno Vasco por la que se inscribe la modificación del artículo 3 (domicilio) de los estatutos de la «Fundación Valle Salado de Añana-Añanako Gatz Harana» de Salinas de Añana (Álava).

Visto y examinado el expediente presentado por la «Fundación Valle Salado de Añana-Añanako Gatz Harana» de Salinas de Añana (Álava), sobre la base de los siguientes:

ANTECEDENTES DE HECHO

Primero.– El 21 de mayo de 2010 tiene entrada en el Registro del Departamento de Justicia y Administración Pública la siguiente documentación a efectos de ser inscrita en el Registro de Fundaciones del País Vasco:

– Doble escritura pública de subsanación y complemento de otra otorgada el 14 de mayo de 2010 por doña M.ª Lorena López de Lacalle Arizti, en representación de la Fundación, ante el notario de Vitoria-Gasteiz, D. Francisco Rodriguez-Poyo Segura, n.º 1797 de su protocolo.

Segundo.– Posteriormente, en fecha 23 de junio de 2010 tiene entrada en el Registro del Departamento de Justicia y Administración Pública la siguiente documentación:

– Doble copia autorizada de la Escritura pública de cambio de domicilio de la Fundación y modificación de precepto estatutario otorgada el 22 de enero de 2010 por D. Jesús María Elorza Fernández, ante el notario de Vitoria–Gasteiz, D. Enrique Arana Cañedo-Argüelles, n.º 122 de su protocolo.

Tercero.– El citado expediente ha sido examinado por los Servicios Técnicos de la Dirección de Registros Administrativos y de Régimen Local que a su vista, han propuesto la presente Resolución, en base a los siguientes,

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– Corresponde la Consejera de Justicia y Administración Pública, mediante Orden, la Resolución del expediente de inscripción de constitución de la Fundación, en virtud de lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco; el artículo 4 del Reglamento del

Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 4. artikuluan; eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuko 4. artikuluan.

Bigarrena.– Espediente honi funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan eskatutakoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamenduaren 44. artikuluan eskatutakoak. Azken erregelamendu hori ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren bidez onartu zen.

Hirugarrena.– Fundazioen estatutuen aldaketak inskribatzeko oro har eskatutako baldintzez gain, gai horretaz Fundazioko estatutuetan berariaz jasotzen diren arauak betetzen dira.

Aipatu manuak eta oro har aplikagarriak diren gainerako arauak ikusita,

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak, hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Añanako (Araba) Añanako Gatz Harana Fundazioaren estatutuetako 3. artikuluan egindako aldaketa (helbidea) onartzea.

Bigarrena.– Fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa hori inskribatzeko agintzea, agindu honek duen datarekin, Fundazioaren helbidea eta estatutuarau bat aldatzeko Jesús María Elorza Fernándezek 2010eko urtarrilaren 22an Gasteizko notario Enrique Arana Cañedo-Argüellesen aurrean egiletsitako eskritura publikoan ezarritakoaren arabera (protokolo-zk.: 122); eskritura hori zuzendua eta osatua izan zen M.ª Lorena López de Lacalle Ariztik, Fundazioaren ordezkaritzan 2010eko maiatzaren 14an Gasteizko notario Francisco Rodriguez-Poyo Seguraren aurrean beste eskritura bat zuzendu eta osatzeko egiletsitako eskritura publikoaren bidez (protokolo-zk.: 1797).

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Laugarrena.– Fundazio horri bidaltzea agindu hau.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du; beraz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Au-

Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio; y el artículo 4 del Decreto 472/2009, de 28 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública.

Segundo.– Al presente expediente se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos previstos en el artículo 31 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, así como en el artículo 44 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Tercero.– Además de los requisitos exigidos con carácter general para la inscripción de las modificaciones de Estatutos de las Fundaciones, se cumplen las reglas que, con carácter particular, recogen los Estatutos de la Fundación al respecto.

Vistos los preceptos citados y demás normas de general y pertinente aplicación,

La Consejera de Justicia y Administración Pública,

RESUELVE:

Primero.– Aprobar la modificación del artículo 3 (domicilio) de los Estatutos de la «Fundación Valle Salado de Añana-Añanako Gatz Harana» de Salinas de Añana (Álava).

Segundo.– Ordenar la inscripción de dicha modificación estatutaria de la Fundación, con la fecha de la presente Orden, de acuerdo con lo establecido en la Escritura pública de cambio de domicilio de la Fundación y modificación de precepto estatutario otorgada el 22 de enero de 2010 por D. Jesús María Elorza Fernández, ante el notario de Vitoria–Gasteiz, D. Enrique Arana Cañedo-Argüelles, n.º 122 de su protocolo, subsanada y completada mediante escritura pública de subsanación y complemento de otra otorgada el 14 de mayo de 2010 por doña M.ª Lorena López de Lacalle Arizti, en representación de la Fundación, ante el notario de Vitoria-Gasteiz, D. Francisco Rodriguez-Poyo Segura, n.º 1797 de su protocolo.

Tercero.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Cuarto.– Remitir a la citada Fundación la presente Orden.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante esta Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tri-

tonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 23a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

bunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de junio de 2010.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.